

## **DIRU-SARRERAK**

Enpresak diru sarrera eta kostu batzuk edukiko ditu, enpresa orok bezala. Diru sarrerak, bigarren eskuko produktu hauek baita kurtxillo hauek egiteagatik lortuko duguna izango da. Kontuan eduki behar dugu gure enpresak bigarren eskuko jantzi eta materialak erabiliko dituela horregaitik merkeagoa izango da denda arrunt batean erositakoa baino.

Salduko ditugun altzariak baita kamisetek ez dute prezio finkorik izango. Prezioa aldatu egingo baita jantzi zein materialetan. Jantzi desberdinen jatorrizko prezioa kontuan hartuz baita erabili dugun materiala hori burutu ahal izateko, diseinu mota, luzeera, tamaina, koloreak eta hasieran zeukaten egoerari erreparatuko diegu.

Kamiseta edo alkandora bat zuk nahi dezun produktuan eraldatzearen prezioa 10-15€-koa izango da, tamaina baita zein material den kontuan izanik. Altzairu bat konpontzea edo berritzearen kostua 20-25€-koa izango da. Altzairua eraldatzearen kostua 30-35€-koa altzairuaren arabera. Kurtxilloak, egunero bi orduz emango diren klaseak izango dira eta gehienez 10 pertsona egon ahalko dira covid-19aren egoeraren gatik, segurtasun-neurriak mantendu. Ikastaroak, 15€/ordukoak izango dira.

Noski, hau hasierako prezioa izango da. Guk jasotako materiala zaharregia izanez gero prezioa aldatzea ezinbestekoa izango da. Beste egoera bat prezioan eragingo duena bezeroek eskatzen diguten diseinua izango da. Geroz eta diseinu konplexuagoa izan geroz eta garestiagoa izango da baita guk erabili behar ditugun materialak kontuan izango ditugu, errentagarria izateko.



Guk eskaera prest edukitzean, berezoki harremanean jarriko gera eta produktua nola jaso nahi duten erabakiko dugu. Hori jakin ondoren, korreosen bitartez jaso nahi badute beraiekin hitz egin eta prezioa zenbatekoa izango den jakingo dugu. Izan ere, prezioa aldatu egingo da pisua eta tamainaren arabera. Ondoren, gure bezeroari jakinaraziko diogu eta ados egonez gero, eskerari gehituko zaio kostua. Berdina gertatuko da guk eraman behar izanez gero.

